

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta NNPEK-k "Erresumako ibilbide ekologikoak" sustatzea adostu dute

*Ekoturismoa Foru Erkidegoko eskaintza turistikoaren produkturik  
funtsezkoena dela uste dute*

Martes, 24 de mayo de 2011

Juan Ramón Corpas Mauleón jarduneko Kultura eta Turismo kontseilariak eta Carlos Bienzobas Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko (NNPEK) presidentek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute aurten "Erresumako ibilbide ekologikoak" eskaintza turistikoa sustatzeko.

Nafarroako Gobernuak zein NNPEK-k turismo berdea Nafarroako eskaintza turistikoaren funtsezko produktuetako bat dela uste dute eta ekoizpen ekologikoko nekazaritzako elikagaien hainbat enpresak eskaintzen dituzten zerbitzu turistikoak "mota horretako eskaintza zehazteko oso interesgarriak direla". Horregatik, bi aldeek turismoa sustatzeko ekintzak batera eta koordinatuz burutzea erabaki dute.

Ibilbide horiek, baliabide kulturalak, gastronomikoak, ondare baliabideak eta nekazaritzako ekoizpen ekologikoko enpresek eskaintako zerbitzu turistikoak oinarri hartuta, produktu turistikoak osatzen dituzte.

2011n gauzatuko diren sustapen ekintzak Nafarroako turistak eta txangozaleak erakartzeko eta Nafarroa turismo berdeko helmuga bihurtzeko bideratuko dira. Kultura eta Turismo Departamentuak "Erresumako ibilbide ekologikoak" Nafarroako eskaintza turistikoan barne hartu eta Nafarroako informazio turistikoaren sarea osatzen duten 11 turismo bulegoetan eta 35 informaziorako guneeetan zabalduko du. Gainera, argitalpen turistiko bidez hedatzen den eskaintza turistikoetan eta Gobernuak Nafarroako eskaintza aurkezteko bisitatzen dituen estatuko eta nazioarteko merkatu guztietan aurkezten duen eskaintzan agertuko dira ibilbide horiek.

Halaber, Nafarroaren estatuko eragileen eta nazioarteko eragileen bidez prentsa oharrak egin eta eskaintza hedatuko da eta ibilbide horiek online erreserben plataforman barne hartzeko aukera aztertuko da.

Bestalde, 2011n Nafarroako turismo gastronomikoaren plana burutuko da. Horren haritik, "Erresumako ibilbide ekologikoak" plan horretan jasotzen diren ekintzen programetan barne hartzeko aukera aztertuko da: estatuko eta nazioarteko merkatuetan aurkezpenak, prentsa, famtrips, merkaturatzeko laguntza, e.a.